

eta Errumania, 105. urtean konkistaturiko *Dacia Traianako* lurralde urruna, da, hain zuzen, erromatar jatorria argiro erakusten digun bakarra³.

Hau guztior harrigarri xamar irudi dakiguke, noski, batez ere Erromatar Enperadoregoko lurralde guztietan, *romanicus* hitzetik *romance*, *romanz*, *romans* eta *rumantsch* hizkuntz izenak sortu eta Erdi Haroaren azkeneraino ongi iraun zutela kontuan harturik.

Nazioak, ia beti, politikazko erakunde baten ondorioa izaten dira, eta, maiz, horri esker zabaltzen da gizatalde eta lurralde osoan talde izen konkretu bat, izen horrexen iturburua, lehen esan denez, geographian dagoelarik. Exenplu hurbil bat gogoratzeko, *español* izena aipa daiteke.

Paul Aebischer-ek ongi frogatu zuenez, *español* izena ez da, jatorriz, espainola, hots, ez da gaztelania zaharreko hitz arrunt bat, Proventzaticoko mailegu bat baizik⁴. Hala ere, Amado Alonsoren liburuan⁵ —autorearen osterantzeko intentzio pikardatuak gora behera⁶— ongi ikus dezakegunez, errege katolikoen garaitik aurrerantzean, eta ez lehenago, kentzen dio *español* hitzak tokia *castellano* delakoari, eta hor, zer esanik ez, politikazko arrazoi bortitz batzu zeuden.

Espainolaren antzekoa dugu errusiarren kasua. Berauen nazio izena, *ruskij*, *rus* sustraitik dator, IX mendeko printze varegoen etorreraz sartua. Varegoak suediar jatorriko vikingoak ziren, eta dirudienez *rus* izena bera ere haien tribu baten izen germanikoa besterik ez zen⁷.

Deutsch, alemanen nazio izena (< **diutisk-*), J. L. Weisgerber-en thesisaaren arauera, modu berean, VIII mendearen erdialdean eta frankoen erresumaren mendebaldean sortua dela dirudi⁸. Jakina denez, frankoak bihizkuntzadunak ziren, eta hortik zetorkien, noski, *romanice* 'erromantzez' mintzo zirenak *theodisce* 'alemanez' ari zirenetatik bereizteko beharra⁹.

3 Suitzako, Italiako eta Austriako erromantxeek, nazio izen bat ez badute ere, *erromatar* izena kontserbatzen dute orain arte: *rumantsch*, *romontsch*.

4 Ikus, arazo interesgarri honetaz, Américo CASTRO, *Sobre el nombre y el quién de los españoles*, Ed. Taurus, Madrid, 1973.

5 Amado ALONSO, *Castellano, español, idioma nacional*⁴, Losada, Buenos Aires, 1968.

6 Amado Alonso nafarra zen, Leringoa, eta aipatu dugun obran esanak esan arren, Corominasek dioenez, bere azken urteetan, Argentinan zegoenean, nolabait eritiziz aldatu edo bigundu egin zen. Euskal gauzak, dirudienez, oso gogoko zituen orduan.

7 Ikus Dmitri CHIZHEVSKI, *Historia del espíritu ruso. 1. La Santa Rusia*, Alianza Ed. Madrid, 1967, 19-22. horr.

8 Ikus J. L. WEISGERBER, *Deutsch als Volksname. Ursprung und Bedeutung*, Stuttgart, 1953.

9 Okertxo zebilkgun, honetaz, J. THALAMAS LABANDIBAR *eusko* eta *Deutch* (sic), Tusk elkarrekin konparatzean. Mitxeleneri eskertzen diodan ohartxo batetan azaltzen didanez, ba dirudi *Deutsch*-en etymotzat jotzen den **diutisk-* hori, *deot* (azken buruan **teutā*) de-

Romance hitza, Arana-Goirik, Espainiako orduko philologoek eritziaren erantzukizunak, ongi aldarrikatu zuten¹⁰, *romanice*-tik dator, hots, adberbio bate-tik; *romanice loqui*, gisa horretan, 'erromatarki' edo 'erromatarrez' mintzatzeari besterik ez zen hasieran, nahiz eta, geroago, adberbio hori sustantibo izatera iragan. Hemen, dakusagunez, *romanus* edo *romanicus* izenetik dator hizkuntza erromanikoen lehen izena, haik, bestalde, Erromako hiriarrenetik sortuak. Geographia eta politika agertzen dira, hemen ere, iturburuan. Antzekoa zatekeen, noski, *latin* hitzaren sorrera, *Latio* geographi izenetikoa, hategia.

Gorago aipatuez gain, herritarrenetik sorturiko nazio izenak *England* eta *Hellás* (*hállēnes*-tik sortua berau) ditugu. Honetaz, esan behar da, ethni izena agertzen denean, askoz ere lehenago azaltzen dela herritarren izenean berauen herriarenean baino¹¹. Horrek, noski, esplikazio erraxa du. Lehengo eta behin, gizatalde batek lurralde bat «berrea» kontsideratzeko, leku horretan denbora luzesko batez egon behar duke, eta, bigarrenez, lur bati izena ezartzeko, aurretik talde horrek nolabaiteko politik erakunde bat eduki behar duela dirudi, izenok duketen funtzioa «markatzailea» izaten baita, hots, beste herriekiko bereizgarri gisa erabiliak izatekoa. Ez da dudarik, beraz, *Deutsch*-etik *Deutschland*, *rus*-tik *Rossija*, *romanus*-tik *Romania*, *franci*-tik *Francia*, *vascones*-tik *Vasconia*,... eta ez alderantziz, sortuak direla.

Hor dago, bestetik, indiar eta iraniarren deitura zaharra, *ārya*-, gaur arte *Iran* izenean gordea¹².

Guzti honen konklusiotzat, ethnien izen bereziaren osatze eta hedatzea, ia beti, egoera lotgarri baten ondorioa izan dela esan liteke, eskuharki militar edo eta politikazko batasun batek bultzaturik. Europan, gainera, Erdi Haroaren lehen partean sortuak ditugu izen gehienok, eta horietan Geographiaren eragina ezin nabariagoa da. Batasun politikorik gabeko ethniek, herri, talde eta taldekatan banatuek, batasun bakarra hizkuntzan edukitzen dute, baina izen komuna, ordea, falta¹³.

Hizkuntzaren izena, gehienbat, herritarrenetik eratorria izaten da, eta adberbio sustantibatu delakoaren bidea oso erabilia gertatzen.

lakoarekin loturik dagoela, beronen esangura 'herri' edo 'populu' zelarik. Ikus Juan THALAMAS LABANDIBAR, *Eskualdunak-Erdaldunak*, "Gernika", 14. zenb. Bayonne, 1951, 23. hor.

10 Aranaren eritzi hori, *posthume* agertua, 1913. eko *Euzkadi* aldizkarian, X urtea, 372-375. horr. ikus daiteke.

11 Ikus, honetaz, Eugenio COSERIU, *Teoría del lenguaje y Lingüística general*³, Ed. Gredos, Madrid, 1973, 273-278. horr.

12 Ikus Antoine MEILLET, *Introduction à l'étude comparative des langues indo-européennes*, reprinted by University of Alabama, 1973, 58. hor.

13 Hori da, beste askoren artean, gaurko erromantxeen kasua.

XABIER QUINTANA

Ethni izenaren funtzioa, azkenik, markatzailea izaten da beti. Begi bistan da, horrela, hauzoric gabeko herri bakarti batek —irla urrun batetakoa, kasu— ez lukeela premia hori sentituko ¹⁴.

ERROMATARREN GARAICO EUSKAL LURRALDEAREN EGOERA

Ptolomeo, Estrabon, Plinio eta erromatarren garaiko beste geographoen datuetatik, gaurko Euskal Herria, mendebaldetik ekialdera, autrigoi (*autrigones*), karistiar (*caristi*), barduliar (*varduli*) eta baskoi (*vascones*) izeneko gizatalde batzuk populatua zegoela dirudi. Caro Barojaren ustez ¹⁵, kanpoko geographo horien banaketak orduko euskal *gens* ezberdinen egoerari zegozkionak ziren. Sasoi hartako euskaldunek, horretara, sozial eta politik batasun orokor bat falta zuketean ¹⁶.

Horrek ez du esan nahi, ordea, *gens* ezberdin haien artean hizkuntza bera —«aurreuskara»— egiten ez zenik. Caro Barojak, honetan, Mitxelena bezalaxe, Schulten eta Gómez Morenoren usteen kontra, *gens* guzti haien hizkuntza «aurreuskara» zela uste du ¹⁷, baskoiek, mendebaldeko autrigoienganako hedatze batez, haraxe eramana izan barik. Eritzi berbera onhartzen dute, azkenik, A. Barberok eta M. Vigil-ek ¹⁸.

ERROMATAR ENPERADOREGOAREN ONDOKO EGOERA

V mendean, Erromatar Enperadoregoaren amileraz, visigoduek Penintsulako agintaritzaz hartzen dute, baina iparraldeko jendeek —baskoiek eta kantabriarrek bereziki— izugarritzko burrukak egin zituzten beren lurraldea eskura ez ziezaieten, haien nagusigoa inola ere onhartzen ez zutelarik ¹⁹.

14 Horrek esplikatu lezake eskimalek beren buruei ematen dieten izena, *inuit* 'herria, populua' lit. 'gizonak' (sing., *inuk* 'gizon'), basamortu elurreztatu haietako bizilagun bakarrak direlako. Ikus UNESCOren *El Correo*-n (1975.eko Urtarrila, XXVIII urtea) Alexander STEVENSON, *El desarrollo del Norte es un proceso histórico irreversible*, 13-30 horr.

15 Julio CARO BAROJA, *Los Pueblos del Norte*?, Ed. Txertoa, San Sebastián, 1973, 63-82. horr.

16 Schulten-en datuetatik ongi ikus daitekeenez, *Vasconia* hitza, lehenbiziko, Kristo ondoko 449. urtean dokumentaturik agertzen da, nahiz eta *vascones* jadanik Tito Liviok, Kristo baino lehen eta 77-74. urteetako sertoriar gerrei daragoiela, aipaturik agertu. Ikus A. SCHULTEN, *Las referencias sobre los vascones hasta el año 810 después de J. C.*, R. I. E. V. en XVIII tomoa, 1957, 226. eta 233. horr.

17 CARO BAROJA, op. cit., 99-100. horr.

18 A. BARBERO, M. VIGIL, *Sobre los orígenes sociales de la Reconquista*, Ariel, Barcelona, 1974, 57-58. horr.

19 CARO BAROJA, op. cit., 132. horr.

Barbero eta Vigilen ustez²⁰, VI mendearen bigarren partean kantabriar eta euskaldunak, beren burruka etengabeei esker, beren buruen jabe ziren, visigodu, franko eta sueviarren menpekotasuna jasan barik. Garai berean, Caro Barojak ongi seinalatu duenez²¹, lehenagoko *gens*-en banaketak desagertu egiten dira, eta aintzinako autrigoiien lurretatik baskoien lurerrainoko lagun guztiek jadanik izen berbera ukanen dute: *vascones*²². Ba dirudi Caro Barojak datu hau orduko khronistek lehenagoko klasifikazioak aherentzi baliatuzte bezala kontsideratzen duela²³; nik neuk, ordea khronisten oker bat ez, baina horrek, azken finean, beste zerbait erakuts liezagukeela susmatzen dut.

Gaurko *euskara*, *euskaldun* eta *Euskal Herri* izenak, geroago aztertuko ditudan bariante oso eskas eta ñimiño batzurekin, euskalki guztietan agertzen dira. Honek, ene ustez, gauza bat agertzen du: hitz horien modernotasun erlatiboa. Juan Gorostiagak²⁴, neronenak ez diren beste arrazoi batzurengatik, susmatu zuenez, *euskara* Erdi Haroko hitz bat dateke, eta horrela, lehen ikusi dugunez, *Deutsch*, *rus* eta antzeko izenen denborakidetsu.

Oso gauza harrigarria da, bestetik, *euskaldun* eta *Euskal Herri* izenek gaur arte gure lurralde osoan irautea, gurea izen horien hedadura egiteko Estatu ofizial bat inoiz ukan ez duen herri baten kasua izanki²⁵.

Ene ustez, arazo honen giltza C. Barojak, Barberok eta Vigilek «guztiz independente» tzat aipatzen dituzten VI-VII mende horietan datzake.

Ez dago biderik, nik uste, erromatarrak visigoduak baino khronista trebeagoak zirela pentsatzeko. Haiek, giza batasun bat barik, tribu ezberdin

20 BARBERO, VIGIL, op. cit., 132. hor.

21 CARO BAROJA, op. cit., 131 hor.

22 Antzeko fenomeno bat gertatu zen XVI-XVII mendeetan *vizcaíno* hitzaz, beronek *euskaldun* hitzaren zabalera semantikoa hartzean. Beharbada, *vizcaíno*-ren usadio hori gaztelauek gehienik tratatzen zituzten euskaldunak bizkaitarrak izatetik etorri zen; era berean, agian, *vascones*-en taldea ugariena zela eta, gertatu zen izen horren hedadura.

23 CARO BAROJA, op. cit., 131. hor.

24 Ikus JUAN GOROSTIAGA, *Antigüedades Vascas*, "Gernika", n. 14. zenb. Bayonne, 1951, 16-17. horr.

25 Nafarroako Erresumak, XI mendetik aurrerantzean behintzat, lege eta ohitura kontuengatik osotora euskal Estatutzat hartzen badugu ere, hizkuntzaren eta ethni izenaren ofizialtasunari doakionez, ez zuen funtzio hori bete, eta bertako populazioaren gehiengoa mintzairaz euskalduna izan arren, erresuma erdaldun gisa aritu zen beti.

Hizkuntza berbera adierazteko hitz komun baten falta katalanak erakusten digu argi, Valenciako eta Balearetakoa lagunek, Kataluniakoekin ezin hobeki ulertu arren, beren mintzairak izendatzeko *valencià* eta *mallorquí* hitzak baitarabiltzate. Orobatsu gertatzen da portuges-galegoekin ere, berauegan, gainera, izen komunik ezak populu bien arteko kultur lotura guztiak hausteraino eramanik. Kasu guztietan, jakina denez, dialektalizazio tiki batzu besterik ez daude, baina euskaraz, aldiz, gaurko egoeran herriko hizkuntza arrunta euskaldun urrunduena arteko komunikaziorako gauza izan ez arren, euskaldun guztiek hizkuntza berberaren kontzientzia dadukate Pirinioen alde bietan, horretan hizkuntz komunitasun harrigarri eta indartsu baten zentzua agertuz.

batzuren berri ematean «beraiek lurralde hartan orduan topatu zutena» izan zela onhartzen badugu, halaber, urte batzu geroago eta toki berean visigoduek ethni batasun bakar batekin topo egin zutela onetsi behar dukegu. Khronista guztiek aurrean zekusatena kondatzen baziguten, begi bistan dagoke, orduan, klasifikazio zaharrak ez zitzaizkiela visigoduei aiantzi, aitzitik, aintzinako banaketak orduko euskaldunengan jadanik deseginak ziratekeela. Visigodu eta frankoen erasoei erantzuteko, orduko jendeek, lehenago autrigoi, karistiar, barduliar eta baskoi bezala antolatuak zirenek, sozial eraketa hura alde batera utzirik, batasun politiko eta militar bat osatua zuketena²⁶. Lehenik *gens* kontzientzia bana besterik ez zedukaten talde haik nazio berbera izateko kontzientziara heldu bide ziren, eta, horrela, beren burua izendatzeko izen komun bakarra izatera ailegatu.

Ikusmira honetatik, beraz, orduko *vascones* eta *Vasconia* hitz jeneralduak sasoi bereko *euskaldun* eta *Euskal Herri* euskal hitz moldatu berrien itzulpen zehatzak ziratekeen²⁷.

Hitz horien aztertzeak eginen digu argi. Dakikegunez, *euskaldun* eta *Euskal Herri* izenak *euskara*-tik sorturiko hitzak dira, lehena deribazioz eta bigarrena *tatpuru*a delako konposizioz jaiok, erregela ongi ezagunen bidez²⁸. Horrek, ordea, gauza bat darakuskigu, euskaldunek beren nazio batasuna hizkuntzan oinharritu zutela, eta, hain zuzen ere, *gens*-en sozial estruktura zaharra baztertzean, hura taldeko guztien odolkidetasunean ezarria baitzen, hizkuntza gertatu zitzaizen lokarri nabarien.

Ba liteke, noski, *euskara* hitza lehenagokoa izatea, baina, ene irudiko, V-VI mende haietan lortu zuen bere funtzio bereizgarririk zehatzena, *gens* ezberdin haien arteko lotura bilakatzean. Hortik sortu zatekeen *euskaldun* (< *euskara* + *dun*) hitza nazio ezagugarri bezala, giro hartan, euskaldunak etsaietatik —visigodu-frankoetatik— bereizteko ezagupidea, hain zuzen, *euskara* baitzen²⁹.

Hizkuntz oinharri hau, esenplu jakin bat gogoratzeko, eslaviarren ethnizenean ere ba dago. *Eslaviar* hitza (*slovene*) *slovo* 'hitz'-tik dator, eslaviarrek beren hitzak erabiltzen zituzten lagunei kide baitzeritzeten. Germania-

26 BARBERO, VIGIL, op. cit., 64. hor. Ikus, gainera, José María LACARRA, *Historia política del Reino de Navarra*, Ed. Aranzadi, Pamplona, 1972, tomo 1, 21. hor.

27 Izan, lehenagokoak dira latinez, noski, *vascones* eta *Vasconia* —ikus, honetaz, 16. oharra— baina sasoi horretan hasi ziren, osotasun batez, euskal lurralde guztietarako aplikatzen.

28 Arazo honetan, aipatzekoa da, duen garrantziagatik, oraintsu agertu den obra hau: Luis VILLASANTE, *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Ed. Franciscana de Aránzazu. San Sebastián, 1974.

29 Gauza berbera gertatuko zen geroago, musulmanak etortzean, J. M. Lacarrak ongi seinatu duenez. Ikus J. M. LACARRA, op. cit., 49. hor.

rrak, eta eskuharki kanpotar guztiak, haientzat *neme-* (*nēm-* lehen) ziren, hau da, 'mutuak', 'hizketan ez zekitenak'. Hitz hori, gaur soilki alemanei aplikatua, errusiera zaharrean edozein kanpotarri zegokion.

EUSKARA HITZAREN ETYMOLOGIAZ

Neure azterketa honetarako oinharritzat (*h*)*euskara* hitza hartzen dut, *eskara*, *eskuara*, *euskera*, *eskuera*, *uskara* eta osterantzeko barianteak hartatik sortuak direlakoan. Norbaitentzat hau hain garbi ez badago, itsasoaren gainean euri egitea bada ere, neure azterketa hasi aurretik esan dudanaren frogak ematen saiatuko naiz.

Eskara hitza, XVII mendeko zenbait obratan erabilia³⁰, *euskara*-tik dator, *eu-* diphthongoaren *e-* laburtzea oso fenomeno normala baita (cf. *neure* > *nere*, *euri* > *ebi*, *deukot* > *dekot...*)³¹.

Eskuara eta *euskuara* formak, gaur Lapurdin eta Nafarroa Beherean erabiliak, metathesis argi batzu dira, bigarrena *eskuara* eta *euskara* arteko gurutzaketatik sortua. Textu zaharrenetan ez da ez bata ez bestea agertzen, eta hori, *eus-*dun formek duten hedaduraz batera, aski froga da haien bigarrentasuna erakusteko³².

Euskera, gaur egun Gipuzkoako mendebaldean³³ eta Bizkaian erabilia, bi fenomenoren ondorioztat jo genezake. Bata, noski, herri etymologia litzateke, *-kera* hori beste *-kera*-dun hitz ugarietako analogiaz sortuz (cf. *basikera*, *ibilkera*, *edakera*, *jakera*, *janzkera...*). Bestea lehen syllabaren *u*-ren kausaz hurrengo *a* > *e* bihurtzea dateke (cf. bizk. *eunek etorri ziren* 'ehunak etorri ziren')³⁴. *Eskuera*-rako, ikus *eskuara*-ri buruz esana.

30 Horrelaxe agertzen da, esate baterako, Joannes Etxeberri Ziburukoaren *Noelak* liburuan, autore ezberdin batzuk egindako aprobazio eta eskaintzako poemetan. Orobat Martin de Hoyarzabal eta Piarres Detcheverry-ren *Jxasoco nabigacioneco* liburuan ere.

31 Ikus Luis MICHELENA, *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastián, 1961, 99-100. horr.

32 Juan Gorostiagak —ikus 24. oharra— *eskuera* forma hartzen du jatorrizkotzat, *esku* + *era* bezala banatuz, berau latinezko *manuaria* eta erromantzezko *manera* gisa interpretatuz. *Eskuera* hori, ordea, Bizkaiko kostaldeko bariante oso berria da eta forma zaharrena bailitzen ezin proposa daiteke. Geroago ikusiko den *heuskara* forma bera alde batera utzirik ere, nola esplika liteke, bide horretatik abiatuz, *-era*-tik ekialdeko euskalkietan *-ara* sortzea?

33 Mitxelena oharterazi didanez, garai bateko giputzek *euskara* maizako erabiltzer. zuten *euskera* baino. Larramendik eta Kardaberazek, ikusi dudanez, horrialde berear noiz bata eta noiz bestea, forma biak tartekatzen zituzten.

34 Norbaitek, honen kontra, *erdera* ere ba dela esan diezadalkeenez gero, derradan, ene ustez *erdera* hitza *euskera*-ren forma analogiko bat besterik ez dela, hitz biak elkarrekin oso loturik daudelako, hiztunak *euskara* dioenean —gogoan behintzat— *erda*, hitz kontrasta ere baitarabil.

Uskara eta *uskera*, lehen Nafarroa Beherean eta Erronkarin eta bigarrena Bizkaiko zenbait tokitan erabiliak, *eus-* diphthongoaren laburkuntza huts batzu dira, geroago ukituko ditudanak³⁵.

XVI mendetik honako forma berri xamarrok gaineratu arakatu ondoren, sar nadin orain *euskara* delakoarekin.

Etxaparek 1545.ean eta Leizarragak 1571.ean *heuskara* bana dakarte, eta Axularren garaitik *euskara* eta *h* gabeko formak literaturan hobetsiak izan badira ere, ez dut uste, metodologiaz, lehen textuotako forma hori, beste gabe, baztertzekoa denik.

Dakusagunez, *euskara-ren* lehen data 1545.ekoa da, baina, zuzenik ez bada, zeharka bederen, hitz horrekiko aipamenak are mende batzu lehenagora atzera litezke, zeren XIII mendeko nafar dokumentu batzutan *Garcia Erdalduna* eta *Miguel Erdara* agertzen baitira, (*h*)*euskaldun* eta (*h*)*euskara-ren* kide segurak³⁶.

(*H*)*euskara* eta *erdara*, jakina denez, *latine*, *vasconice* eta *romanice* bezala (gaurko *vascuence*, *romance*), adberbiozko forma batzu izan dira (cf. *gogara*, *aitzonara*, *gibelara*...) ³⁷, geroago, baina, sustantibatuak. Bukaera, horretaz, atzizkitzat eman daiteke. Puntua, ordea, honetan datza: norainoko atzizkitzat jo behar ote dugun.

Orain arte ia aztertzaille guztiek (*h*)*euskara* (*h*)*eusk-* eta *-ara* balitz bezala banatu dute, *eusk-* edo *-sk-* horri ethni izenaren funts sakratua eritziarik. Ene ustez, ordea, logikoagoa da, Humboldt-en bidetik abiatuz, Mitxelena aditzera eman duen bestelako zatiketa hau: (*h*)*eus-* eta *-kara*³⁸. Honetan, *k* hori zenbait atzizkik duten forma bikoitzetariko baten hasiera litzateke, sibilanteen ondoan erabiltzekoa (cf. *nafar* / *Nafarroa*, baina *giputz* /

35 Ez dut uste, hauez gain, seriooki behintzat, honez gero *euzkera* gisakorik inork presentia diezadakeenik.

36 Ikus Luis MICHELENA, *Apéndice a "Notas lingüísticas a Colección diplomática de Irache"*, FLV, en I urtea, 1. zenb 1969, 44. hor.

37 *Euskara-ren* adberbiozko erabileraz Oihenartek kasu interesgarri bat dakarkigu: "...nik zuen azturak et'atunak, / gu baitan orano ez enzunak, / argiratu tut ilhunbeti, / et'atherarik herratzeti / guretu, et'eman hek euskara / kobla onzale eskuetara (0.187), *Atsotitzak eta Neurtitzak*, Larresororen ardurapeko edizioa, Irakur Sail, Donostia, 1971, 187. hor.

Antzeko arkhaismoak entzun daitezke oraino Bizkaian zenbait esalditan. Hona hemen bat, J. M. Etxeitaren Josecho elaberritik jasoa: "*Mutikoak bekian oiñez ibiltan, baiña oraindiño ez ekian berbean* (sic): *esaten ebazan berba bakar batzuk euskera*". Karmelo ETXENAGUSIA, *Euskal Idazleen Lorategia*, Donostia, 1969, 154. hor.

Honez gainera, hizkuntza bizian, *egin berba euskera!*, *euskera egin* (= 'euskera' erabiliz) usu entzuten dira.

Dirudienez Hugo Schuchardt izan zen *euskara-ren* adberbiotasun jatorrizkoa igarri zuen lehenbizikoa. Ikus Antonio TOVAR, *El Euskera y sus parientes*, Ed. Minotauro, Madrid, 1959, 135. hor.

38 Ikus MICHELENA, *Fon. Histor. Vasca*, 245, hor.

Gipuzkoa, *aetz* / *Aezkoa*; *haur* / *haurride*, *bide* / *bidaide*, baina *adin* / *adis-kide* (< *adinez* + *kide* 'coetaneus')³⁹, *gogo* / *gogara*, baina *saihets* / *saihes-kara...*)⁴⁰. Banaketa horren ondorioz (*h*)*eus-* edo *(*h*)*eut-* litzateke gure hizkuntzaren lehen gunea.

Sustrai horren etymologia aztertzerakoan, nik uste, hypothesis bi proposa daitezke:

a) (*h*)*eus-* hori gaurko hizkuntza bizian sustrai galdu bat izatea —edo eta ethni izen ezezagun bat (totemikoa agian) gertatzea— eta kasu honetan, dokumentu argigarririk inoiz topatu ezik, ez genekike sekula haren esangura.

b) sustrai horrek gaur egun, hizkuntza bizi edo historikoan nolabaiteko ondorioz edukitzea, eta, kasuon, berreraikiketaz baliatuz, haren azta-rena eta esangura zaharra nola edo hala antzematea.

Ulertzekoa denez, ni neu bigarren hypothesis honetatik irteten naiz, lan egiteko posibletasunik uzten duen bakarra delako, baina, horrez gainera, ba daudeke aukera honen aldeko beste zenbait arrazoi. Gorago esan dudanez, beste hizkuntzen izenak eta ethni deitura, oro har, moderno xamarrek dira, eta susmatzekoa da gauza berbera gerta dakiokela gureari ere. Euskaldunen nazional batasuna visigoduen garaikoa baldin bada, agian hizkuntzaren izena bera ere ordukozea izan liteke, eta, horren kariaz, haren sortorduko hitz bat —arrunta baldin baten— gaurdaino heltzea ez dateke hain harrigarri, are gutiago, hitz hori, ethniaren hizkuntzaren izen komuntzat aukeratzeko, jende guztiak errax ulertu behar zukeen bat zatekeela kontuan harturik.

Azkenik, (*h*)*eus-* + *-kara* zatiketaren ondoren, *ausci* eta *vascones* hitzak —duten *-sk-* horiengatik etymo posibletzat maiz aipatuak— erabat bali-
liorik gabe gelditzen zaizkigukeelako⁴¹.

39 Augustin Xaho izan zen, oker ez banago, etymologia hau eman zuen lehenbikoa. Ikus A. ЧАHO, *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*, P. Lespès Ed. Bayonne, 1865, 36. hor.

40 Ikus MICHELENA, op. cit. 245-246. horr.

41 Horiez gainera ba dagoke beste arrazoi bat. Puntu batetaraino logikoa da, Arana-Goirik —eta berak baino lehenago Humboldt-ek— uste zuenez, *euskara* **eusko* moduko ethni izen batetatik sortua dela pentsatzea. Hain logikoa ez dena, aldiz, beste hau dateke, hots, jatorrizko ethni izen hori baztertu eta hartatik sorturiko hizkuntz izenean berriz oinhardturik *euskaldun* eta *Euskal Herri* hitzak moldatzea, espero zitezkeen **eusko* eta **Euskerrri* modukoak inongo txokotan gelditu gabe. Egon, ba dago kasu bat, *giputz* → *Gipuzkoa* → *gipuzkoar* halebria, bide horretan abiatua, baina azken izena zabaldu bada ere, ez dio horregatik lehenari toki guztietan bizia kendu.

Antza denez, Humboldt-i zor zaio *euskaldun* eta *vasco* arteko ustezko kideatasunaren lehenbiziko eritzia (ikus beronen *Primitivos Pobladores de España y Lengua Vasca*. Ed. Minotauro, Madrid, 1959, 68-73. horr.). Geroago. S. Aranek eta Unamunok uste berberaren alde egin zuten, baina gaur egun, ordea, Mitxelena eta Tovar moduko linguistak erabat eskeptiko ditugu arazo honetaz. Ikus Martín de UGALDE, *Síntesis de la Historia del País Vasco*, Seminarios y Ediciones, S. A., Madrid, 1974, 58. hor.

Formari bagagozkio, beraz, hasierako (*h*)*eus-* hori aztertu beharra dugu. Humboldt-ek (*h*)*eus-* delakoa *eusi*-rekin konparatu zuen. Dakigunez, *eusi* aditza bizkaiera zaharrean dokumentaturik dago 'adausi, zaunka egin' esanguraz. Humboldten ustez *erausi* aditza, 'adausi', 'mintzatu', *eusi*-ren faktitiboa besterik ez zatekeen, eta horren bidetik (*h*)*euskara* hitza **eus(i)-k-ara*-tik zetorkeen⁴², gure hizkuntzaren izena, antonomasiaz 'hitz egitea' izanki. Gaztelania zaharreko dokumentuetan ba dago, noski, horren kiderik: *hablar en el lenguaje* (uler bedi *castellano*)⁴³, eta horrela balitz (*h*)*euskara* 'hizkuntza arrunta, normala' litzateke.

Phonetika aldetik, ordea, ba dagoke etymologia horren kontrako akats bat. Lehengo eta behin, ekialdeko *heuskara* azaltzeko, alde horretako euskalkietan **heusi* edo holako zerbait topatu beharko genuke, baina horren lekuan Azkuek *L-bard*-en *ehüsi* (sic) bat demaigu, bestelako lekukorik gabe. Gainera, *erausi* aditza 'mintzatu' eta 'adausi' izan arren⁴⁴, ez dago frogaturik *eusi* arkhaiko hori noizbait lehen esangura horrekin horniturik egon zenik, eta alde horretatik ere, ene ustez, Humboldten etymologiá ahul gelditzen da.

Bide hori utzirik, hona hemen, ene irudiko, fruitukorrage gerta daitekeen bat. (*H*)*euskara* hitzean agertzen den (*h*)*eus-* hori, fonetikazko eboluzio normal baten arauera (*h*)*eus-* > *(*h*)*us-* > *(*h*)*uts-* bilaka erazi dezakegu (cf. *uskara*, *uskera* gisako era modernoak). (*H*)*uts* hitzak, hain zuzen, iparraldeko euskalkietan *h-* bat du, aintzinako (*h*)*euskara*-k bezalaxe, eta Zuberoan, kideasun haundiagorako, *hüskara*-ren ondoan *hüts* hitza agertzen da.

Phonetikaz eragozpenik egon ez arren, ordea, bistakoa da *huts* eta (*h*)*eus-* horren artean, semantikari doakionez, nolabaiteko aldea dagoela, argitu beharrekoa. *Huts* hitzaren esangurak, Azkuek dioenez, hauk dira: 1. 'vacío' 2. 'mero, puro, simple, desprovisto de mezclas'. 3. 'vano, sin valor'. Esangura hauen arteko lotura, noski, neke handirik gabe atera daitezke. *Hutsik* dagoenak —ontzi bat, kasu— ez daduka ezer, 'garbi dago' eta hortik datorkioke bere bigarren esangura (cf. esp. *ha dejado vacío el vaso, ha vaciado el vaso, ha dejado limpio el vaso...*). Hirurgarrena, noski, *hutsik*, deus ez duenak 'ez duela baliorik' delako iragaitzaz letorke (cf. esp. *le han deja-*

42 Humboldt-ek *eusi* Larramendiren "Suplemento" tik jaso zuen, eta jesuita andoaindarrak, bere kontutik, 1596.eko "Refranes y Sentencias" etik. Willem Jan Van EYSek ere, bere *Dictionnaire Basque-Français-en* (Paris, 1873), següenez iturri beretik hartuta, hitz hori ezarri zuen.

43 Ikus Amado ALONSO, *Castellano, español, idioma nacional*, 13. hor.

44 *Erausi* dela eta, Akitaniako *Herauscorritsehe* eta behin baino gehiagotan aipatu dira. Mitxelenak, hala ere, izen hori NB.eko *herauts/-tx* 'ordots, zerri ar'-ekin gonbaratu ukan du. Ikus L. MICHELENA, *Textos arcaicos vascos*, Ed. Minotauro, Madrid, 1964, 19. hor.

do limpio de polvo y paja, le han limpiado en el juego, le han dejado sin nada, le han arruinado...). Euskarazko lehen esangura bien artean, ordea, gauza kurios bat nabari dezakegu; berdin esaten dela *botila hutsik dago* 'ez daduka ezer', 'hustuta dago' eta *kafe hutsa* 'kafe garbia, besterik gabea', hots, modu berean adierazten direla 'deus ez edukitzea' eta 'garbirik, nahasterik gabe egotea'.

Huts hitzerako eman den bigarren esanguratik atera daiteke, nik uste, argibiderik. (*H*)*euskara* hitzaren (*h*)*eus-* horri signifikantza aipatua ezarriz gero, ondorioa hauxe litzateke: (*h*)*eus* + *kara* = *huts* + *kara* 'huski', 'garbiro', 'erraxki', 'ulertzeko moduan', 'pure'. Horren kariaz *euskara* 'mintzatzeko garbia, erraxa, adigarria' litzateke, antonomasiar. Berau pentsatzeko ba daude eredu batzu bai euskaraz eta bai gaztelaniaz (cf. *argi eta garbi esan du, lo ha dicho a las claras, hablar claro...*). Herri eta jende guztientzat, jakina, hizkuntza 'argi' eta 'ulertzeko egoki bakarra' beraiena izaten da eta horrek ondorio batzu utzi ditu hizkuntza batzutan (cf. lehen aipaturiko *slovene / neme-*, esp. *hablar en castellano...*)⁴⁵.

Euskara hitza, etorkiz, 'mintzaira ulergarria' zatekeela agian Zuberoako gaurko usadio pitxiak erakusten diguke oraindik. Gauza jakina denez, zuberotarrentzat *hüskara* beraien euskalkia besterik ez da, eta *euskaldunak*, halaber, bertakoak. Besteok —hain erraxki ulertuak ez garenok— *manexak* (< *Joanes*) edo are izen zatarragoz izendatzen gaituzte. Hor *euskara*-ren balio etymologikoak gorderik lirauke oraindano.

Gerta liteke, gainera, *heuskara* hitza sustantibo + adjektibo + atzizki adberbializagarri gisako multzo zahar baten elipsisa izatea, agian *hitz heuskara* 'hitz huts-kara' edo *elhe heus-kara* 'elhe huts-kara' gisakoak (cf. Oihenarteren *gogo onkara*, esp. *hablar en* (lenguaje) *castellano*, etab.). Hortxe daude, azkenik, *euskara hutsean egin*, (euskara) *garbi egin*, *euskara garbian esan*⁴⁶ eta antzekorik asko.

Guztiok kontuan harturik, V-VI mendeetako euskaldun bildu berri haientzat *euskara*, hain zuzen, elkarren artean 'ongi ulertzeko' zuketzen mo-

45 Oraintsu, eta ustekabeen, Xahoren aipamen interesgarri bat irakurria dut, beharbada hemen zer ikusi duena. Ez dugu ahantzi behar, jakina, zuberotar autore erromantiko honen fantasia beroa, baina, hala eta guztiz ere, ez da garbi ikusten zergatik gezur edo asmakeria bat esan behar zuen puntu honetaz. Hona hemen: "*Bon! répliqua le hachero, voilà qui s'appelle parler basque, parler clair.*" A. ЧАХО, op. cit. 20. hor. Obra berean, 35. hor. antzeko esaldi bat dakar, bestearen fidagarritasuna nolabait indartzen duena: "*—Marche comme un Basque et parle haut et clair, ajouta-t-il (le hachero)...*".

46 Ikus Antonio ZAVALA, *Pernando Amezketarra bertsolaria*, Auspoa, Donostia, 1966, 44. hor. Horko bertso batetan Pernandok honela esan omen zuen: "...*egunazko argian / jokatu nai nian / plazaren erdian / euskera garbian;...*".

dua zatekeen, *gens*-en arteko *koiné* gisako zerbait⁴⁷. Hortik letozke, azkenik, *euskaldun* 'garbiki mintzo dena' eta *Euskal Herria* 'aisa mintzatzen deneko lurraldea'⁴⁸.

Heuskara-tik *euskara*-rako pausoa, Mitxelenak jadanik seinatu duenez⁴⁹, azentu aldaketa baten ondorioa izan daiteke. Hasierako *heus-* horrek, esangura propiodun hitz bat-tzat hartua eta ulertua zen artean, bere azentua zeraman, *héus-kara* halebria (cf. eusk. *eder eta galantik*; esp. *-mente* duten adberbioak: *lisa y llanamente...*)⁵⁰. Lehen partearen esangura iluntzean, ordea, azentua hirur syllabatako hitz gehienetan gertatzen den modura, bigarren syllabara pasatuko zatekeen eta aspirazioa, horrexegatik, lehen syllabatik galduko, euskaraz sibilanteen ondoko oklusiba aspiraturik ez baita. Ez zen posible, beraz **euskhára* modukorik sortzea, *euskára* baizik.

Heus- hori dela eta, ez nuke hemen aipatzeke utzi nahi —ausartegi izateko perilean ere— berorrekin fonetik antz nabaria duen beste hitz

47 Gorago, 25. oharrean esanak esan arren, G. Monreak zorrozki seinatu didanez, kontuan hartzekoa da *Navarra* estat izena Euskal Herri osoa zedukán Iruinar erresuma zatitu zenean, eta ez lehenago, agertu zela. Honek esan nahi duke visigoduen kontrako burruken garai urrunean moldaturiko izen horrek geroago ere, Iruinar erregetzapean, Santxo Haundiaren erreinurarte, indartzeko eta errotzeko beta ukan zezakeela.

Caro Barojak eta Lacarrak ongi aipatu dutenez, *Navarra* izena XI mendearen azkenean, *condado de Navarra* bezala agertzen da, dirudienez sei edo zazpi hirialdek osaturiko lurraldea adieraziz. Lehenagoko monarkhek *Iruineko*, *Gasteizko*, *Durangoko etabarreko erregetzat* izendatzen ziren, eta ez *rex Navarrae*. Derragun, bidenabar, *Navarra* izenaren etymologia eta jatorria aztertzean, ia beti, euskal forma, *Nafarroa* halebria, ahantzi egin dela. Honetaz, gogoan har dezagun *nafar* herritar izenaren gain moldatua dela *Nafarroa*, *giputz* edo eta aetz izenetatik *Gipuzkoa* eta *Aezkoa* diren bezalaxe. Ematen duenez, *Navarra* izena XI mendekoa baldin bada, *Nafarroa* ere sasoi bereko hitza zatekeen, horrekin *-(k)oa* atzizkiak gutienez sasoi horretaraino bizirik iraun zuela frogatuz. *Nafarroa* izena, oker ez banago, euskaraz 1571, ean agertzen da lehenbiziko, Leizarragaren itzulpenetan. Dena den, ez legoke gaizki zera gogoratzea, Schultenek dakarrenez —ikus 16. oharra— *navarros* hitza, 810. urterako jadanik dokumentaturik dagoela.

Ikus J. CARO BAROJA, *Observaciones sobre el vascuence y el Fuero General de Navarra*, "Fontes Linguae Vasconum" en, Pamplona, I, 1969, 70-78. horr. J. M. LACARRA, *Hist. Polit. del Reino de Nav.*, 273-277. horr.

48 *Euskal Herria*-ren lehenbiziko esangura horixe da, *herri* hitza 'lurraldea', 'terra', 'patria' baita, eta 'jendea', 'populu', aldiz, bigarren azeptio bat, moderno xamarra eta seguraski erdal eraginez sartua (cf. *Beterri*, *Goiherri*, *Herriberri* 'Terranova' (= 'Olite'), *atzerri*, *herratze*, *hertar* etab.). Mitxelenak oharterazi didanez, Mikoleta bilbotarrak, XVII mendean, '*patria, naturaleza de cada uno*' dakar (cf. *lotsabageak erria bere 'el desvergonzado, la patria es suya'* 1596. eko Refr. y Sent.-en). Autore berberak adierazirik, derradan, gainera, *Nafarroako* parte handi batetan, *gari-*, *arto-*, *ligu-*, etab. *-erri* erabiltzen direla, *-erri* atzizki bailitzen. Oker zegoen, beraz, B. Estornés Lasa izen hori *al elemento humano* dagokiola esatean. Ikus B. ESTORNÉS LASA, *Orígenes de los Vascos*, tomo III, Ed. Auñamendi, S. Sebastián, 1965, 28. hor.

Georgiar hizkuntzak kartveliar nazionalitatea batzean ukan zuen eraginaz, hona hemen, gorago, 2. oharrean aipatuez gain. Dzidziguriren zati hau: "Le point de vue selon lequel l'unité de la Géorgie est fondée sur l'unité de la langue est le leitmotiv de tous les documents politiques des siècles postérieurs." "X DZIDZIGOURI, op. cit. 9. hor.

49 MICHELENA, *Fonét. Hist. Vasca*, 215. hor.

50 Gaur egun ere, Bizkaiko leku gehienetan *éuskeraz* esaten da, azentua hasieran ongi markatuz.

bat: *eutsi* (< **eusi*) 'hartu', 'oratu'⁵¹, semantikaz urruntxo gelditzen zaiguna. Partizipio hori, Azkuek dakarrenez, *AN-est-lar*, *Bc* eta *Gc*-en erabilia da, hau da, mendebaletik oso sustrai zabaldu bat dugu. Iparraldeko eta ekialdeko euskalkietan hitz hori ez da gaur kontserbatzen eta dokumentu zaharretan han inoiz agertzen ez denez gero, ezin frogatu ez bazter daiteke bertan noizbait *(*h*)*eusi* delako bat izan zela.

Espero izatekoa zen, noski delako *(*h*)*eusi* batetik *(*h*)*usi* edo *(*h*)*utsi* gisako formarik sortzea. Bigarrenor, *hutsi* halegia, P. Lhanderen hiztegiak dioenez⁵², Harrietek dakar, duen esangura 'hustu' delarik. Lehen forma suposatua *(*h*)*usi*, zuzenik bederen, ez dugu aurkitu, baina bai deribatu bat: *usiki*, *utsiki*, *usigi* 'kosk egin'; beronen esangura mendebaleko euskalkietako *eutsi*-renetik ez dago hain urrun (cf. esp. *agarrar*, *coger*, *morder*). *Usiki* forma Tartasek berak zerabilan eta bizkaiera zaharrea *esugi* azaltzen da; Leizarragak *ausiki* dakar, eta *au-* eta *eu-* hasieretan egoten den alternantzia kontuan hartuz⁵³, errax proposa daiteke *(*h*)*eusiki* bat forma zaharrerako. Gorago aipatu denez, hasierako *h-* horren galtzea azentu aldaketaren ondorio bat litzateke: **húsi*, *hútsi*, baina *usiki*, *utsiki*, halegia.

Eutsi-ren esangurak, Azkue lekuko, hauk dira: 1. '*asido*', '*agarrado*', eta 2. '*cogido*', '*tomado*'. Ez dago, noski salto haundiegirik '*agarrado*'-tik '*tomado*'-ra. Janari eta edariekiko aplikazioagatik⁵⁴, baina, beharbada beste pauso bat ere susma liteke, hots, '*tomado*'-tik '*vaciado*' eta '*dejado limpio*'-ra, '*huts*'-era, hitz batez, eta hortxe legoke, azken batez, *eutsi* eta *huts* arteko semantik lotura ezkutua⁵⁵.

51 Josu Oregik, *eutsi* <**edutsi* <**edun*-etik datorkeela dio (cf. **edun* > *eduki* > *euki*). Horretarako aipatzen dituen arrazoiak biziki zuhurrak iruditu zaizkit, eta fonetik alde-tik ez dakusat eragozpenik. Estrainio xamarra da, dena den, Nafarroa Garaian eta Gipuzkoan epokha historikoetan *eduki* eta *iduki* —Bizkaian *edugi*— moduko formak aurkitu arren, **edutsi* horren zantzorik ez izatea. Ikus J. OREGI, *Euskal-aditzaz zenbait gogoeta*, FLV. en, VI, 17. zenb. Pamplona, 1974, 280. hor.

Mitxelena, bestalde, mendebaldeko *eutsi*-ren adiera eta erabileraz den bezainbatean, arazoa ez dela hain garbia diost, alde batetik *deutso*, *deusku* diren artean, bestetik, *hautso* moduko era intransitiboak azaltzen baitira. Beharbada, forma berberaren azpian bi aditz diferente ezkuta litezke (cf. *dio* 'lap. derauko' eta *dio* 'bizk. dino').

52 P. LHANDÉ, Dictionnaire Basque-Français, Paris, 1926, 464. hor.

53 Ikus MICHELENA, *Fonét. Hist. Vasca*, 101-102. horr.

54 cf. *eutsi* *ogia* 'toma el pan', bizk. *eutsok ardaia* 'toma el vino'.

55 Semantikazko aldaketa hauetaz, gogoratu beharra dago, euskaraz, beste edozein hizkuntzatan bezalaxe, hauzoengandik mailegaturiko kalkoak ez direla falta, eta, horre-xegatik, inguruko hizkuntzek laguntza estimagarri bat eskain diezaguketela arlo honetan; esenplu bat, kasu, *hauts* eta *hau(t)si* artekoa dugu, erdarazko '*polvo*' '*pulverizar*', *hacer polvo* '*romper*' delako bilakaera semantikoari esker uler dezakeguna. Adibideak pilaka aipa litezke: *eskuharki* '*maintenant*', *etxajau* '*duende (casa)*', *ogigazta* '*paniquesa*', *erbinude* <**erdinude* '*comadre(ja)*', *erditu* '*par(t)ido*', etab. Estudio honetarako, halaber, inguruko hizkuntzekiko parekidetasunean oinharritu naiz, beste autore batzuk, neronek baino ezagutza gehiagorekin, are esenplu ugariago eta hobeak ekar ditzaketelakoan.

ERDARA HITZAREN ETYMOLOGIAZ

Eta gauzak arakutzen hasiz gero ezer falta ez dezagun —tentazioa, one-rako zein txarrerako haundiegia baita— nakion oraingoan *euskara*-ren beste hitz osagarriaren etorkiari.

Erdara hitzaren zatiketa, iruditzen zaidanez, *euskara*-rena baino erraxagoa dateke, hitz bien adverbiozko bukaerá gauza berbera dela kontuan harturik. Horretaz, zatitze logikoa **erda*- + *-ara* genuke⁵⁶. Ene ustez, *erd*- + *-ara* banatzea ez da inola ere zuzena, *erd*- horren azken *d* hori, posizio horretan, *t* bilakatuko litzatekeelako. Batzuk, A. Xahok, J. Gorostiagak eta A. Tovar-ek haien artean⁵⁷, *erdara* hitza *erdi* + *era*-tik deribatu ukan dute, hitz horren forma zaharrena *-ara*, eta ez *-era*, izan zela alde batera utzi arren, bide horretatik *erdera* edo *erdara* barik **ertera* edo **ertara* sortuko ziratekeela pentsatu gabe⁵⁸.

Iruditzen zaidanetik, **erda*- dateke sustraia, bizkaieraz, inperatibo gisa, oraindik dirauen *erdu* 'etor' delakoaren deribaziorako forma bat⁵⁹. Ez bedi pentsa, ordea, aditz hori hedadura gabekoa izan denik. *Erdu*, dakigunetik, Axularrek berak zerabilan ekialdean, *erdu*tu partizipio osoaren itxuraz, esan-gurá, geroago ikusiko denez, erabat berdintsua izan ez arren.

Erdu(*tu*) horrek, *erdi*-k ez bezala, *-u* ezin kenduzko bat zuen eta, maiz aipatzen dena gora behera, *-u* / *-a* arteko alternantzia gerta zekiokkeen, **erda*-

56 **Erda*- sustrai hori jatorrizko **erda* batetik edo eta **erdo*, *erdu*- zein **erde* gisako hitzen deribaziorako formatatik etor liteke. *Erde* dela eta, B. Estornés Lasak *erde* 'lerde, adur' etik etor zitekeela dio. Ikus, honetaz, *Origenes de los Vascos*, tomo II, Ed. Auñamendi, S. Sebastián, 1961, 185. hor.

J. M. Satrustegik jentilki adierazi didanez, Burundan *erdea* 'lerdea', ahotiko txuari esaten zaio, Luzaiden *etorria* esaten zaionari, halebria.

57 Ikus Xahok zer dioen: "(les Basques) s'appellent entre eux Euskariens, *Eskual-dun*; en même temps qu'ils donnent le nom de *erdara*, verbe imparfait, demi-langage, aux dialectes mixtes, aux jargons ténébreux des peuples étrangers, sans excepter les langues espagnole et française", *Voyage en Navarre*, 89. hor. Ikus, halaber, A. TOVAR, *El Euskera y sus parientes*, Ed. Minotauro, Madrid, 1959, 136-140. horr. J. GOROSTIAGAREN artikulurako, ikus 24. oharra.

58 cf. *ertaro* 'erditzeko sasoiá', *erthoain* 'erdi dohain', *erthordi* 'erdi hordi', *ertikara* 'erditzeko ikara', zub. *ertullan* 'erditzeko hurran', *hertu* 'guttitu', etab. *Erdara* hitza *erdi*-tik baletor, ekialdeko euskalkietan **ertara* gisakorik espero genezake, *ert*- delako forma oso indartsu kontserbatzen baitute.

59 Arana-Goirik berak ere, oraintsu ikusi dudanez, *erdara* —edo hobeto esan, *erdera*— hitza *erdu*-tik etor zitekeela pentsatu zuen, baina hypothesis hori desestimaturik, *erri*-(*d*)*era*-tik, '*lengua de las gentes*', '*lengua de las naciones*' (sic), zetorkeena hobetsi zuen, lehenago Humboldt-ek egin zuenez. Honetaz, 9. oharrean *Deutsch*-ez esan dugunaz gain, aipagarria dateke hemen amerindiar hizkuntza baten izenaren kasua. Gure artean komunzki *ketxua* izenaz ezagutzen den mintzaira, hura erabiltzen dutenen artean, aldiz, *runa-simi* deitua da, hau da, 'herri edo populu xehearen hizkuntza', *inka-simi* delakoa 'jaunen hizkuntza' zen bitartean. Hor, noski, *herri* edo *jende* izena norbere burua izendatzeko hautatu zuten bertakoek, eta ez inorena adierazteko. Ikus Ernst W. MIDDENDORF, *Gramática keshua*, Aguilar, Madrid, 1970, 7. hor.

geldituz (cf. *kutsu / kutsakor, katu / katakume, pinu / pinadi, piku / pikatze...*)⁶⁰.

Esandakoaren arauera, *erdara* 'etorritakoen moduz', 'etorrien hizkuntzaz', '(en) forma advenediza' litzateke (cf. gaurko *etorkin*)⁶¹. Azkuek, etymologia hori eman ez arren, hitzaren zentzu zabal eta jatorrizkoa erakutsi zuen ('modo extranjero'), bai *euskara* eta bai *erdara*, hizkuntzei ez eze, baizik eta janzkera, ohitura eta moduei ere aplika zekizkiekeela adieraziz, eta hori, *-kara* atzizki adberbiozkoa kontuan harturik, erabat logikoa da. Jakina, hitz horrexetatik sortuak dira *erdaldun* eta *Erdal Herria*, *euskaldun* eta *Euskal Herria*-ren ele kontrastak.

Erdara, hasiera batez, latinari edo eta erromantze komun bati esan bide zitzaion, geroago, etymologiaz beti akort joanik, inguruetan sortu ziren erromantze ezberdinei esateko. Horrela esplika genezake, kasu, ipar euskaldunek *erdara* eta *erdaldun* Frantziakoei esaten dieten artean, hegoaldekook, aldiz izenok Espainiakoei zuzentzea.

Ba dagoke, gainera, *erdara* hitzaren khronologia nolabait mugatzera lagun lekigukeen beste datu bat, *euskara*-ren kasurako ere kontuan hartzekoa. *Erdutu* partizipioa latinezko *reductu*-tik etor liteke, euskaran, *bentzutu*-rekin batera, dauden *-utu* partizipio guttietarik bat izanki. Oztopo bat izan daiteke, noski, aintzinako *-ct-* taldea euskarara nola iragan zen ongi ez jakitean, gure hizkuntzak moeta horretatik daduzkan hitzak —*fruitu* (< *fructu*), *deitu* (< *dictu*), *peitu* (< *defectu...*)— latinetik ez baina erromantzeetatik

60 Komunagoak izaten dira *-o/-a* (cf. *oso/osatu, sendo/sendagaila...*) eta *-e/-a* (cf. *lore/loratu, ate/ataburu...*) gisakoak, baina *-u/-a* dutenak ere ba dira. Azkuek, kasu, *xahu/xahatu, tratu/tratalari* dakartzatza. Egia da, dena den, xahutu eta tratulari bariantek, fonetikaz oinharriaren formá osorik gordetzen dutenak, hedatuagoak direla, eta ez ditza-gun ahanz, bestetik, etymologi nahasketarik gerta ez dadin edo, azken *-u* hori sekula galtzen ez aldatzen ez duten kasuak: *mezu/mezulari, testu/testulari* 'bertsolari moeta bat' *bertsu/bertsulari...* Gisa berean, posible da, *erdu*-tik zuzenik inoiz *erdara* sort zitekeela kendu barik, horrez gainera edo batera —**erduara* moduko bat ere agertzea, jatorrizko hitza hobeki erakusten zuena. Ondorioak, kasu bietan, berdinak ziratekeen, *-ua-* diphthongoa euskaraz *-a-* izatera pasa baitzitekeen (cf. *guapo > bapo*), *-ue-* > *-e-* iragan daitekeen bezalaxe (cf. *pañuelo > bizk. pañelu*); aldaketa honetan, beharbada, *euskara*-ren diphthongo gabeko bukaerak analogiaz eragin zezakeela pentsa daiteke, agian **erduara* horrek *eskuara*-ren sortzapenean zerikusirik ukan zezakeen bezalaxe, berau denbora zaharretan dokumentaturik egon ez arren.

Erronkarin *nazierde* 'zatoz' eta *nazierdei* 'zatozte' direlako formak bildu zituen Azkuek, *(*ko*)*na* + *zu* + *erd(u + zit)*-tik sortuak diratekeenak. *Erde* horrek, ordea, *erdu* sustraiak ez zuela beti bere *-u* hori bere horretan gordetzen frogatuko liguke, **erda-* delakoari indar emanez. Derragun, azkenik, *-u/-a* alternantziak, partizipioetatik ateratako gune sustantibatu batzu —*o-* dunekin batera— maiz bide beretik doazkigula: *aipatu/aipu, eskribatu/eskribu, pentsatu/pentsu...*

61 Oso kuriosoa da, dudarik ez, Satrustegik *erde* eta *etorri*-z dioskuna —ikus 56. oharra—, baina hala ere ez dirudi hortik oso urrun hel gaitzekeenik. Istilua honetan datza, *erde/lerde(h)elder* alternantzian jatorrizko forma zein zen asmatzea garbi ez ikustean. Ikus MICHELENA, *Fonét. Hist. Vasca*, 340. hor.

mailegatuak dituelako⁶². Gaur egunean, dena den, gatzelania arruntean gertatzen den bezalaxe, *c* hori galtzeko ohitura dago (cf. *tratore, direttore...*). Inoiz **erduitu* gertatu baldin bazen, partizipiozko bukaera galtzean, *-ui* diphthongoa ez zatekeen iraunkor izanen, euskaraz *wi* diphthongoak eskasak baitira, laster *erdu* eta analogiaz *erdu* bilakatuz⁶³. Esangurari doakionez, seinala dezadan Axularrek *erdu* aditza zentzu moral batez darabilala, erdarazko *convertido* edo *reducido* bezalatsu⁶⁴.

* * *

Etymologiaren itsas hondargabetik nabigatzeak ekar diezazkidekeen arriskuen jakituna naiz, baina, hala ere, kontzientzia behintzat lasai dadukat. Zuzen banago *ad maiorem vasconum gloriam* pauso bat gehiago emana dake, eta oker banengo, guttienez, gaiok hobeki eta sakonkiago aztertzeko bidean beste irrikitu bat zabalik gelditua dagoke kilikaberen zain, baina ez dut inondik ere, etymologiak edo zirenak zirelakoengatik, euskaldunon Herri eta herkideei beraien izen jatorrak aldatzeko kausa eta erantzunkizun pisutsurik hartzen, norbaitek —neure egiten ez ditudan balio batzuren izenean— behiala egin bezala⁶⁵.

62 Frantsesez *réduire, réduit* 1361. urtean dokumentatzen da lehenbizikoz; ikus A. DAUZAT, J. DUBOIS, H. MITTERAND, *Nouveau Dictionnaire Étymologique et Historique*², Lib. Larousse, Paris, 1971, 637. hor. Inguruko erromantzei gagozkielarik —euskararen iturri gertuagoak berak— XIV mendean aragoieraz *reduyptos* eta *adueyto* aurkitzen dira; ikus A. ZAMORA VICENTE, *Dialectología española*², Ed. Gredos, Madrid, 1970, 218. hor. Horiez gainera, *conduito, enduito* eta *aduito* G. TILANDER-en *Los Fueros de Aragón*-en, (glosario), Lund. C.W.K. Gleerup, 1937, eta autore berberaren *Vidal Mayor*-en, Lund, 1956, agertzen dira. Nafar erdaraz den bezainbatean, R. CIÉRVIDE-k *conduito* maiz dokumentatzen dela adierazi dit, *El Romance Navarro* izeneko bere thesis doktoral oraino ezagertuaren hiztegian (X-XV mendeetakoan) ikus daitekeenez. Dena den, gaurko bizkaieran *erdu* horrek oraino irauteak —jadanik *-tu* gabeko beste aditzik inperatiboan gelditzen ez delarik— mailegu hori oso zaharra dela erakusten digu.

63 Aipatzekoa dateke, hala ere, *-kt- > -it- > -t-* bilakaera horrek ez duela zertan euskarazkoa izan behar jatorriz, M. Pidalek eta M. Alvar-ek oharterazten dutenez, Erdi Haroko aragoieraz ere fenomeno hori berdin gertatzen baitzen. Ikus M. ALVAR, *El dialecto aragonés*, Ed. Gredos, Madrid, 1953, 190-191. horr.

64 Hona hemen bi esenplu: “*Eta halatan agian, ahalketurik bedere, geure eginbi-dearen egitera eta traillaizera ernatuko eta erdutuko garela*”, “*Eta hala ikhusikoituzu iendethaillu batzuk, neurriaren bethatzeaz kontu guti eginik, abiadura handi batekin bekhatu gehiago egitera abiatzen eta erdutzen direla*”. Ikus Luis VILLASANTE, *Axular-en hiztegia*, Ed. Franciscana Aránzazu, Donostia, 1973, 181-182. horr.

65 Etymologi kontuoz gainera, noski, ba zeuden ordurako, nolabait, ulergarri —baina hala ere ez erabat justifikagarri— ziren eta oraingo inondik ere defendagarri ez diren beste arrazoi extralinguistiko batzu, gaur zenbaitzuk gogoratu nahi ez dituztenak. Ikus Sabino ARANA-GOIRI, *Euzko*, “Euzkadi”n, Bilbao, 1908, 52-55. horr. Izen aldaketa hori dela eta, polemika ugari sortu izan dira, lehenbizikoa, oker ez banago, Kanpionek egina; ikus R.I.E.V. en *Sobre el nuevo bautizo del País Basco* (sic), 1907, 148-153. horr. Azken geraren ondoan, Carlos Ruiz de Galarretak eztabaida sonatu bat atera zuen gai berberaz *Gernika* aldizkariaren 17. zenbakian. Hurrengo zenbakietan askoren eritziak agertu ziren bertan, irakurleak kontsulta ditzakeenak.

EUSKALDUNON ETHNI IZENAREN ETYMOLOGIAZ

Oraingo euskaldun berriek —zorionez gero eta ugariago agertzen ari zaizkigun txoriak berak— agian estrainio eritziko diokete aintzinako euskaldunek beren mintzairari, munduko erraxena zelakoan, *euskara* izena ezartzeari, baina ongi begiratuz gero, izen hori ipintzera eta hizkuntzan nazio batasunaren oinharria jartzera bultzatu zituen izpiritu berberori, hain zuzen, geure egunotan ere, etxeko bizilagun guztien integrabiderako, gero eta premiazkoago ari zaigu egiten guri ere. Dena dela, segur naiz, besteak beste, etymologia horrek, gutienez, Oteitza adiskidea osorik poztuko duela.

Bilbon, 75-III-12

Xabier KINTANA

SUMMARY

In this paper historical formations of some ethnical and national names, among European peoples, are studied.

Taking into account the data from classical geographers and Visigothic chronicles as well, the author points out that the formation of the ethnical name of the Basques and their language (*euskaldunak* and *euskara*) could date back to V and VI cent., as a consequence of the integration of the old «gens» in a wider social unity based on language. So, the ethnical name may have been derived from that of the language itself.

(H)*euskara* 'vasconice' is likely to be related to *huts* 'empty, simple, pure' and *eutsi* 'caught', 'taken', being interpreted as '(in) simple language', (cf. *plain English*). *Erdara* '(in) a no basque language' would come from *erdu* 'come (part.)' and it is being interpreted as '(in) an outsiders' language'. The fact that it may come from lat. *reductu* would enable us to date —to a relatively late epoch— such word and, indirectly, the word *euskara* itself.

